



Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2014ko azaroak 20ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **Honako puntuen berri eman da:** 1.1. Goiener-ekin bilera; 1.2. Diruzaintza-kudeaketak; 1.3. "25 urte iraunkortasunaren alde" ekitaldia; 1.4. "Smart Local Governance"; 1.5. Udal azpiegituren jokaera kontrolatu eta kudeatzeko aplikazioa; 1.6. Exotikoen EBko araudia; 1.7. Udalsarea 21 Biodibertsitate taldea; 1.8. Ebaluazio eta Jarraipen Programa; 1.9. Elektrizitatearen faktura optimizatzea.
- **Hondakin organikoak bildu eta garraiatzeko zerbitzua:** Haizeteak jasaten dituzten eta finkapenak behar dituzten kokapenak identifikatu dira. Aldatzeko materialak erostea ere aurreikusi da.
- **Bilketa organikoari buruzko Informazio Plana:** Informazio Planean aurreikusitako bigarren fasean (postontzietan banatzea, autokopostaje tailerrak eta bosgarren edukiontzirako kit-ak banatzea) beste ekintzaren bat gehiago gauzatuko da eskuragarri dagoen diru-laguntzaren diruarekin. Epe laburrera, kartel berriak editatuko dira udalerrietako bilketa-gune iraunkorren berri emateko. Ekoizle handiak modu positiboan erantzuten ari dira.
- **Hondakinak biltzeko kontratuak bateratzeko proiektua:** Aurreikusitako hurrengo jomuga abenduaren 18ko bilera diagnostikoa aurkeztea da.
- **Smart City proiektua:** Lehiaketaren, esleipendunaren eta lan-planaren berri eman da. Batzordearen ezohiko bilera monografikoa edo ohiko bilera baten blokea aurreikusten da. Lehenago, informazioa eskatuko zaie udalei, galdera-sorta baten bitartez.
- **Zerbitzu Ekosistemikoen proiektua:** Bulegoak adierazgailuak ikuskatzen eta tokiko informazioa ematen lagunduko du, zerbitzu ekosistemikoak identifikatu eta kuantifikatu ahal izateko.
- **Hondakinak Prebenitzeko Aste Europarra:** Azaroaren 28an, ostirala, Bizkaiko Konpostegira egingo den bisitaren planaren berri eman da.
- **Lankidetzaren protokoloa URArekin:** Uraren Euskal Agentzia Batzordearen bilera batera gonbidatzea adostu da.
- **Faktura elektrikoa optimizatzearen proiektuaren jakinarazpena:** hilabete barru, gutxi gorabehera, behin betiko datuak prest daudenean, proiektuaren amaieran, emaitzen eta aurreztearen berri ematea adostu da.
- **Lehiaketa publikoa: Etxeko landare-olioa biltzeko zerbitzua:** hurrengo Batzordean pleguak onartzea eta jarraian lehiaketa argitaratzea adostu da, urtarrilean ebazteko eta otsailaren 1ean kontratu berria hasteko asmoz.
- **Lehiaketa publikoa: Abandonatutako animaliak biltzeko zerbitzua:** Batzordearen hurrengo bilera onartuko da.



- **2015eko Kudeaketa Plana:** 2015eko Kudeaketa Planaren proposamen berria bidaliko da azalpenekin, abenduko hurrengo bileran onartu dadin.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** abenduak 18an, osteguna, 9:00etatik 11:00ak arte.